

Hamar mila langile hil daitezke amiantoagatik

Euskal Herrian 25.000 langilek baino gehiagok arnastu dute amiantoa lanpostuan, azken 30 urteetan. Aurreikuspena da hirutik bat behar baino lehenago hilko dela; 10.000 lagun inguru, guztira. Gaixoak eta senideak Espainiar Gobernuari konpentsazio edo kalteordain ekonomikoetarako funtsa sortzeko eskatzen ari dira.

DANIEL UDALAITZ

MEDIKUNTZA aurreikuspenik baiko-
renek erakusten dute amiantoare-
kin lan egin duten Europako
500.000 langile hilko direla hurren-
go hogeitaz urteetan, azkenean lortu
baitute erakustea mineral horrek hil
egiten duela. Europako kopuru oro-
kor horretatik, 10.000 euskal langile
inguru hilko omen dira
hurrengo urteetan. Beste
100.000 frantziarrak dira,
eta beste 60.000, espainia-
rrak. 1989 eta 1998 bitar-
tean, guztira, 1.647 pertsona
hil ziren Espainiar Estatuan
mesoteliomagatik —pleurako
minbizia—, amiantoarekin
ibilita hartzen den gaixota-
sunagatik. Euskal Herrian,
amiantoagatik azken hilda-
koaren berria iazkoa da.
Javier de Castro izan zen,
Euskadiko CCOO sindika-
tuaren buruzagia, bizitzan
zehar AHVn amiantoarekin

ibilitakoa. Iaz, urte amaieran, ESK-
k ezagutarazitako epaiak onartu
zuen Eugenio Jiménez de la Rubia
lan bizitzan amiantoarekin ibiltze-
gatik hartutako minbiziaren ondo-
rioz hil zela.

Ikusten denez, kopuru horiek
orain arte nahiko ezkutatuta egon

den arazoaren larritasuna erakusten
dute. Azken aldian arazoa agerian da
CCOO sindikatuak egin duen lan
irraizengatik. Zorionez, gainera,
euskal sindikatuak jarraitu egin diete
ardura eta zeregin horretan. Aldizka-
ri honek lan istripuen gorabeherak
hurbiletik jarraitzen ditu, eta orain



Amianto
mineralaren zuntzekin harremana
luzez izanez gero
arnas sisteman
ondorio larriak eragin ditzake.
Langile askok amiantoarekin
lanean ari zirenik ere ez dute jakin.

ASVIAME, amiantoak eragindako gaixoen elkarte

Atal honen buruan datorren izenak, ASVIAMEk, Euskadiko Amiantoaren Biktimen Elkarte esan nahi du. Elkarte horretan bildu dira amianto mineral hiltzailea zerabilten lantegi eta eremuetan bere garaian egin zuten lanarengatik senideren bat galdu duten euskal familiak edo gaixotu –biriketako minbizia, pleurakoa, asbestosia edo pleurako plakak dituztenak– eta oraindik bizirik daudenak. Oraintsu egin duten prentsaurrekoan adierazi duten moduan, elkarte indartu egin da memoria hartzeko, familia askori eragiten dion arazoa gizarteratzeko eta Espainiar Gobernuari kalte-ordain ekonomiko eta konpentsazioak eskatzeko. “Inork ez zigun jakinarazi nolako arriskua genuen”, diote.

Askotan ez dago jakiterik nor salatu behar den, beren lantegiak dagoeneko ez daudelako; eta beste batzuek ez dute noren kontra egin, lan ezegonkortasunak toki batek bestera ibilarazi zituelako. Horregatik, ASVIAMEk kanpaina hasi du biktimak biltzeko eta Gobernuari konpentsazio funtsa eskatzeko Mutualitateek sortzen dituzten soberakinekin. Ez dutela ezer arrarorik eskatzen diote, beste herrialde batzuetan milaka lagunek duten eskubide bera baino ez. Erresuma Batuan, Italian, Danimarkan edo Suedian, legeak biktimak babesten ditu. Frantziar Estatuak 37.000 milioi euro jarriko ditu hurrengo urteetan. Osasun zaintza ere eskatzen dute, eta laguntza sozial eta psikologikoa.

dela bi urte egin zuen arazo horren gaineko artikulua.

Amianto hiltzaile horren biktimak, hau da, gaixoeak eta senideak, berriro ekin diote lan gaixotasuna dela aitor diezaieten eta Gobernuak konpentsazio eta kalte-ordain ekonomikoen funtsa sor dezan. Gaixotako askok, argi dago, ez dakite norengana jo; beren lantegiak desgertu ziren; Mutualitateek ez dute gaixotasun hori lan gaixotasun gisa aitortzen eta epaitegien bidea, garestiaz gainera, ia-ia ezinezkoa da. Bestetik ezean, Gizarte Segurantzak gutxika-gutxika aitortuz doa gaixotasun hori lan gaixotasuntzat –EAEn, berrogeita hamar kasu inguru aitortu ditu dagoeneko–.

Ondorio larrienak etortzeko daude

Beste ezer baino lehen esan behar da amianto edo asbestoa zer den, zein industria sektoretan erabiltzen den eta zer ondorio dituen. Amianto minerala da; itsasontziak eta trenen eta autoen materialak egin eta konpontzeko, siderurgian zuntz zementua egiteko eta ubideak eta gasbideak mantentzeko erabiltzen da. Amianto tenperatura oso altuak edo frikzio handia jasan behar zuten piezak egin edo biltzeko baliatzen zen. Mineral horren zuntze-kin luzaro harremana izanez gero, atzeraezineko ondorioak uzten ditu arnas sisteman, eta besteak beste, honako ondorio hauek ditu: biriketako minbizia, mesotelioma –pleurako minbizia–, asbestosia eta pleurako plakak.

Amiantoak hemengo 200 lantegi baino gehiagotan erabili izan da, EAEko 174 lantegitan. Espainiako 1.670etan eta Frantziaren ere, oso zabalduta dago

EAEn bakarrik, 25.000 langile inguruk arnastu dute amianto azken hogeita hamar urteetan. Material hori 200 lantegi baino gehiagotan erabili izan da Euskal Herrian (174 EAEn); 1.760 lantegitan, Espainiar Estatuan, eta askoz gehiagotan Frantziar Estatuan. Amiantoarekin lan egin duten langileen kalte fisikoak mineral hiltzailearekin harremana izan eta urte askotara igartzen direnez, orain agertzen hasi den egoera hurrengo urteetan eta

“Mutualitateek ez dute aitortu nahi kasu horiek lan gaixotasunak direla eta dagokien lantegiek ez dituzte kalte-ordainak eta prestazioen errekaruak ordaindu nahi”

Jesus Uzkudun, CCOO

hamarkadetan guztiz larrituko da, oraingoz arazoaren ertz bat baino ez baita. Azken aldian, askoz gaixo gehiago agertzen ari dira.

Mutualitateek eta lantegiek ezjakinarena egiten dute

Gaixoeak eta haien senideak, baita haien alde egin nahi duten sindikatuek ere, arazo larria dute. “Mutualitateek ez dute aitortu nahi kasu horiek lan gaixotasunak direla, eta dagozkien lantegiek ez dituzte kalte-ordainak eta prestazioen errekaruak ordaindu nahi”, salatu zuen Jesus Uzkudunek, CCOO sindikatuko Lan Osasunaren arduradunak.

Adibidez, joan den urtarrilean, sindikatu horrek salatu zuen Fremap Mutualitateak errekurritu egin zuela Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren (INSS) erabaki bat. Institutu horrek emakume langile bati ezintasun absolutua onartu zion lan gaixotasunagatik, pleurako minbiziarekin hil eta bi hilabete geroago, jatorria, zalantzarik gabe, amiantoarekin ibili izana zelako. Langile horrek, 1966 eta 1972 bitartean, Zamudioko lantegi kimiko batean jardun zuen lanean, eta han amianto erabiltzen zuten prentsetako beroaren isolatzaile. Mutualitateak familiari baldintza jarri zion erakustea duela 35 urte amiantoarekin zebilela, urte haietan amianto zerabilten lantegi askok inoiz ez baitzuten halakorik adierazi ezta izenik eman ere Amiantoaren Arriskudun Enpresen Erregistroan. ■